

Fr. LUIS VILLASANTE, OFM.—*Eliza. Kristau fedearen sustraiak*, III. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia, 1984.

Kristau fedearen sustraiari buruz Fr. Luis Villasantek idatzi duen obra hirukoitzaren azken partea da hau. Lehena *Jainkoa* (1962), bigarrena *Jesukristo* (1969) eta hirugarren hau *Eliza* deritzana.

Hara non oinarritzen den liburu honen edukina: Lehen kapituluak Eliz barnean gaur nabari diren zenbait joera adierazten dira. Bigarrenetik sartzen da Jainkoaren erresuman, gero Apostoluen auziaz, hierarkiazko karguak, San Pedroren

aintzintasunez, Elizaren lehen urratsak, Erromako burutza, Aita Sainduaren tokia Vatikanoko Lehenak eman zuen definizioz, Eklesiologiaren giltzarri den Apostoluen suzesioa atxikitzez, Apezpikuen kolejialtasunez Vatikanoko II.ak irakatsi zuen arau-eraz, Kristiandadepeko kondaira gertakari eta istiluak interpretatuz, hamabitik hamabost kapituluetan Eliz Irakasgoaren auziaz, elizaren zertarakotasunaz. Horreraino Teologia Fundamentalaren metodoz aztertzen du (batipat honen ikuspegiz hartzen bait da Eliza liburu honetan). Hamazazpigarrenean Eliza fedezko misteriotzat zer den adiaraziz dator, gero Elizaren ezaugarriez, erlijioso bizitzaz, apaiza gaurko munduan, Elizegituren tentsioak eta Elizaren amatasunez.

21 x 15,5 neurriaz 412 orrialdez osatzen den liburu mardula, apaingarriz eta argazkiz ere oso jantzia dator.

Edonorri aitortu beharrezkoa zaigu Instituzio bezala Elizek duen iraupena harrigarria ez ezik historian beste ezerk ez bezalakoa gertatu dela eta bere funtsean fede sendo bati zor zaiola. Beste gauza bat da gure egunotan eskatzen zaion gaurkotetasuna. Alde honi garrantzi guti emango dio egileak, zeren badaki instituzio iraunkortasunaren berri. Hala ere, liburua-aren lehen partean agertuko ditu zenbait eritzi: «Badakit egun gaurkotetasuna bilatzen dela. Baina gaurkotetasuna ez dago bakarrik gauza berriak esatean: gaur gogoratzea komeni den gauzak esatean ere bai».

Vatikanoko II.a eta Holandako kontsilioaren arteko eritziak ere emango dizkigu: «Vatikanoko II.aren orientazioa supernaturala da, Jainkoari buruzkoa; eta alderdi antropozentrikoa ondorio bezala dator. Holandako Kontsilio Pastoralean, berriz, gizonagan hasten eta bukatzen da dena».

Une horietan «Teología de la Liberación» deritzana ere kontutan hartzen du. Oraiko moda hortaz 40. orrialdetan emango digu bere eritzia, «Liberazio» teologiaren zentzu semantikoa argituz. Izan ere zer besterik izan da kristautasuna Jainkoari errendaturik egotean gizon bakoitzaren libertatea eta lagunurkorik ez menperatzea baizik? Hortarako, izpiritu berri bat ekarri zuen mundura, 47. orrialdean adieraziko digunez.

Argi dago egilea fede sendo baten barnean dagoela. Hala ere idekitasun handiko gizona ageri da. Agnostikotasuna, uler-tu ez ezik, oso normaltzat hartzen du; baina ezeptikotasuna ezinezkoa iduritzen zaio. Bizitzaren izateak berak kezkatzen bai du gizona. Tartean pluralismoa ere aipatuko digu, edonork haintzat hartzekoa denez.

Aspaldiko gaia izanik, gaurkotetasunik ezin zaio ukatu. Bide horietatik zerbait apartetxo gabiltzanontzat ere badu zer irakatsi. Eliza gaiak jakintzaz beteriko liburu irakurgarria. Hizkuntza ordea, aberatsa eta aldi berean argia eta erraza, egile prosalari bikaina denez.